



6/2020 INSTRUKZIOA, MARTXOAREN 16KOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA. KONTINGENTZIA-PLANA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ADMINISTRAZIO- ETA KUDEAKETA-ZERBITZUETAN

Koronabirus berriak gure autonomia-erkidegoan eragindako ezohiko egoera dela-eta, neurriak hartu behar dira: batetik, asistentzia-mailan, kalitatezko arreta eskaintzen jarraitzeko, eta, bestetik, Zuzendaritza Nagusiko bulegoetan zerbitzua ematen duen administrazioko eta zerbitzuetako pertsonalaren lana ahalbidetzeko. Era berean, neurri hauek erreferentzia gisa balio ahalko dute gure osasun-sarea osatzen duten zerbitzu-erakunde guztietarako.

Ildo horretatik, aldi baterako eta salbuespenezko antolamendu- eta prebentzio-neurriak hartu behar dira birusaren hedapena gelditzen laguntzeko eta zerbitzuen jarraitutasuna bermatzeko.

Horretarako, hainbat neurri hartuko dira; besteak beste, telelana egiteko aukera aztertuko da, neurri hori dagoeneko ari baitira hartzen bai enpresa pribatuen esparruan, bai administrazio publikoen esparruan.

Telelana lana antolatzeko modu malgu bat da, eta jarduera profesional bat lantokian fisikoki egon gabe egitean datza, betiere lanpostuaren eginkizunek, jarduerak edo premiek hala ahalbidetzen badute.

Hortaz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak Zuzendaritza Nagusi honi emandako ahalmenak erabiliz, honako instrukzio hau ematen da.

INSTRUKZIOA:

1.- Salbuespen gisa eta aldi baterako, beharrezkotzat jotzen diren antolaketa-neurriak ezarriko dira, Osakidetza Nagusiarik bulegoetan lan egiten duen administrazioko eta zerbitzuetako pertsonalaren telelana barne.

2.- Zuzendaritza Nagusiak, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzak, Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritzak eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak, beren zuzendariordetzekin batera, arlo edota zerbitzu estrategikoak identifikatuko dituzte, antolamendu- eta telelan-neurrien bidez jarraitutasuna bermatuta eduki behar dutenak.

Era berean, gainerako arlo eta zerbitzuetan antolamendu- eta prebentzio-neurriak ezarriko dituzte, eta telelana ezarriko dute antolamendua eta txandakatzea egokituz jotzen denean.

3.- Oro har, astebeteko txandakako sistema bat ezarriko da lanpostuan aurrez aurreko lana egiteko eta etxetik lan egiteko, % 20an eta % 80an, hurrenez hurren. Beraz, astean zehar, profesionalen % 20k zuzendaritza nagusian egingo du lan, eta beste % 80ak etxean. Neurri horren ondorioz, aurrez aurreko lana egingo da astean egun batean, eta etxean asteko gainerako egunetan, salbu eta Zuzendaritza Nagusiak, arrazoi operatiboengatik, beste antolaketa egokiago bat zehazten badu.



Ezarritako antolaketa-neurriek ez dakarte langileek betetzen zuten lanaldi arruntaren dedikazio-ehunekoa aldatzea, salbu eta, Zuzendaritzaren premiak direla-eta, hala ezartzen bada.

4.- Lan-modalitate honetan parte hartuko duten langileek beharrezko IKTak izan beharko dituzte etxean: PC edo ordenagailu eramangarri bat (antibirusa eguneratuta eta Interneterako konexioarekin), Internet Explorer 11 arakatzaila (edo berriagoa) eta telefono mugikorra.

5.- Era berean, erakundeak lan egiteko beharrezko IKTak eskura jarriko dizkie txandakako modalitate honetan lan egiteko izendatzen dituen langileei.

6.- Giza Baliabideen Zuzendaritzak ezarriko ditu, Prebentzio Zerbitzuak finkatutako irizpideen arabera, zerbitzuak telelan bidez emateko aukeraren lehentasunak; hain zuzen, lehentasuna izango dute COVID-19aren ondorioen aurrean zaurgarriak izan daitezkeen langileek.

7.- Ezingo zaie inola ere telelana ezarri aurrez aurreko arretako lanpostuei, ez eta, emandako zerbitzuen izaera dela-eta, profesionalen presentzia fisikoa eskatzen dutenei ere. Nolanahi ere, kontaktu-arriskua saihesteko edo gutxitzeko prebentzio-neurriak hartuko dira.

8.- Zerbitzu bakoitzaren arduradunak ezarri beharko ditu, profesionalekin adostuta, telematikoki egin beharreko lanak, zereginak eta eginkizunak. Halaber, helburuak zehaztuko ditu, eta ohiko lanaldiarekin bat datozen ordutegiak finkatuko.

9.- Bermatuta egongo dira lan-modalitate honetan parte hartzen duten profesionalen eskubide ekonomikoak eta lan-eskubideak, egutegian ezarritako lanaldi arrunta erabat betetzea barne.

10.- Erkidegoko osasun-agintariek neurri bereziak amaitutzat ematen dituzten arte luzatuko da telelanaren sistema.

11.- Telelanean dauden pertsonen halako egoerek dakarten arrisku espezifikoaren protokoloa aplikatuko zaie. Eskatzaileak erantzukizunez adierazi beharko du telelana egiteko lekuan komunikazio-sistema egokiak eta lanerako eta ergonomiarako elementu egokiak dituela.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 16a.

Iz.: Juan Luis Diego Casals,
Osakidetza
ZUZENDARI Nagusia
Osakidetza Zuzendari Nagusia

